

UDALBILTZA[®]

ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK 2000



EUSKAL HERRIKO UDAL ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

BORTIZKERIAREN KONTRAKO EGINDAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2000.ko martxoaren 28an

Iazko Irailean, Bilboko Euskalduna Jauregian, Euskal Herri osoko 1800 Udal Hautetsik sortu zuten UDALBILTZA, udal izaera duen Euskal Erakunde nazionala. Han bertan argiro aldarrikatzen zen Institutio nazionalaren zeregina eta zertakoa. "Euskal herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik, eta euskal herritar guztien erabakimen eta partehartze askean oinarriturik".

Zazpi hilabete lehenago, Iruñean egindako batzarrean zehazten ziren, baita ere, Erakunde berriaren helburuak: "Gure ordezkartza eta lan esparruetatik, hau da, marko juridiko-politiko ezberdinetatik abiatuta, sei lurraldeetako euskaldunen harremanak legitimoki bultzatu nahi ditugu. Egungo hiru administrazio egiturak gainditzea beharrezkotzat jotzen dugu, Euskal Herriaren garapen osoa eragotzi dutelako eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko berma gisa".

Beraz, naziogintza integratzailea, pertsonetikiko eta lurraldeetikiko errespetuan oinarritua eta hiritarren borondate askean eraikia da UDALBILTZAK bere gain hartu duen egitekoa eta egiteko era ere. Aldi berean, helburuak zehatz-mehatz izendatu eta adierazteaz gain, aipamen bereziak egiten zaizkio, nola Iruñean hala Euskaldunan, une haietan Euskal Herriak bizi zuen bake eta ilusio giroari. Bai batean zein bestean agirian dago garai hartako su etenaren eskenatokia.

Iruñeko adierazpenak garbiro jasotzen zuen ilusioz eta itxaropenez betetako une hura: "Gure herri eta hirietan honenbestearainoko ilusioa sortarazi duen etapa politiko berriak hauxe eskatzen du: Euskal Herriko Udal Hautetsiek aurrez aurre ditugun aukerak jorratzea, eta eguneroko zeregin politikoa bakerantz eta Euskal Herriko demokrazian eta askatasunean oinarritutako etorkizunerantz bideratzea".

Zalantzarik ez dago, bake giro itxaropentsuan sortua eta su etenaren babesean jaioa dela UDALBILTZA. Etapa politiko berri baten erronkei erantzutera datorrena, nahiz eta, hasiera hasieratik, hamaika manipulazio eta eraso jasan behar izan, hedabide eta indar politiko espainiar eta frantziar askorengandik. Izan ere, ahalegin guztiak egin zituzten UDALBILTZA eta antzeko egitasmoak itotzeko, euskal nazio eraikuntzaren ikurra daraman guztia ezabatzeko eta madarikatzeko.

Ez Madrilek eta ez Parisek ez dute keinu txikienik ere egin Euskal Herriaren borondatea errespetatzearen alde. Aitzitik, heien lege araudi eta marko estatal mugigaitzetan tematurik agertu dira, behin eta berriro. Entzungor egin diote Euskal Hiritarrek eta Euskal Ordezkariek presoei buruz egindako eskaerei.

Dena dela UDALBILTZAK burutuak ditu dagoeneko Euskalduna Jauregian erabakitako helburu asko eta asko. Gaur egun UDALBILTZA errealitate bizia da.

Bestalde, aldatu egin da UDALBILTZAren sorrerako bake giroa, su etena bertan bera uztea jakinarazi zenetik, eta batez ere ETAK atentatuen bideari berriro ekin dionetik. Kale borrokaren erasoek, askotan udal hautetsien kontra eginak gainera, zuzen zuzenean oztopatzen dute UDALBILTZAren helburu demokratiko eta irekia. ETAREN atentatuek, etikoki gaitzesgarriak izateaz gain, erdiz erdi kaltetu eta astintzen dute UDALBILTZAren naziogintza demokratikoa eta inposaketarik gabea. Naziogintza bera eta naziogintzarako konpromezuak kolokan jartzen dituzte eraso, atentatu eta erailketa horiek, euskal gizartearen ekimena ezabatzen dutelako.

Horregatik ezin da mutu geratu UDALBILTZA egoera eta gertakizun horien aurrean, bere helburuak aurrera eramaten eragozten diotelako eta ondorengo hau aldarrikatzen du:

1.- Indarkeriaren erabilerarik gabe, era demokratikoan, askatasunean eta hiritarren borondatean eta erabakimenean oinarritu behar dela naziogintza. Eta beti ere giza eskubideak erabat errespetatuaz.

2.- Euskal hiritarrak direla euskal nazioaren eta honen eskubideen subjektu, eta ez dutela onartuko inposaturiko marko politiko mugiezinik ez eta indarrez inposatutako askapenik.

3.- ETAk oztopo egiten diola euskal nazio eraikuntzari. Bere atentatuek ez dute giza eskubiderik eta hiritarren borondaterik errespetatzen. Euskal gizarteari bere etorkizuna bakean erabakitzen uztea exijitzen diogu. Hori litzake eta bere erabakirik onena eta ausartena. Utz diezaiola euskal gizarteari hitz egiten eta gera dadila. Ezkonezinak baitira indarkeria eta naziogintza, demokrazia eta inposaketa.

4.- UDALBILTZAK eutsi egingo diola hasitako bideari eta hartutako konpromezuari. Bere helburuak betetzen ahaleginduko dela, dituen bitarteko guztiekin, baina beti ere Udal eta Udal Hautetsien borondatezko partehartzean eta inposaketarik gabeko demokrazian oinarritutako Nazio Eraikuntzan.

BATZORDE IRAUNKORRA

Euskal Herrian, 2000ko martxoaren 28an

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2000.ko maiatzaren 23a

INDARKERIAREN ERABILIERARIK GABE, ERA DEMOKRATIKOAN, ASKATASUNEAN, HIRITARREN BORONDATEAN ETA ERABAKIMENEAN OINARRITUTAKO NAZIOGINTZA

Indarkeriaren erabilerarik gabe, era demokratikoan, askatasunean, hiritarren borondatean eta erabakimenean oinarritutako nazio gintza duela helburu. UDALBILTZAK behin eta berriro adierazi du, indarkeriaren erabilerarik gabe, era demokratikoan, askatasunean, hiritarren borondatean eta erabakimenean oinarritutako nazio gintza duela helburu. Eta beti ere, giza eskubideak erabat errespetatzen dituen bideak erabiliko dituela.

Funtsezko printzipio honi jarraiki, salatu eta gaitzetsi ditu UDALBILTZAK ETAREN erailketa eta kale borrokaren erasoak, nazio eraikuntza oztopatzeaz gain, giza eskubideak bortxatzen dituztelako. Eta berriro ere gogorki gaitzesten du UDALBILTZAK gertatu berri den Durangoko Zinegotziaren erailketa, giza eskubiderik oinarrizkoena zapaldu ez ezik, Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien parte hartzea askea zapuztu eta eragotzi baizik egiten ez duelako.

Zatikatu eta norberaren komenentziara ezin erabili den giza eskubideen errespetuan oinarriturik, adierazpen honen bidez erantzuten dio UDALBILTZAK euskal preso politikoen eskaerari:

1.- Giza eskubideak, zein pertsonalak zein kolektiboak, bere osotasunean zaindu behar direla. Bizitzeko eskubide nagusia eta berdin presoen eskubideak.

2.- Euskal hiritar eta bertako erakunde ugari (Udal, Foru Aldundi, Legebiltzarra, ea.) aspaldidanik ari direla presoen aldeko eskubideak betetzeko eskatzen, baina Gobernu espainolak eta frantsesak entzungor egin dietela eskaera horiei eta heien jarrera tematian jarraitzen dutela oraindik ere.

3.- Presoak jatorrizko lekura hurbiltzea, hiru laurdenak beteak dituztenak eta gaixotasun larria dutenak aske uztea exijitzen zaie Madrilgo eta Pariseko Gobernuei, aldi berean kartzeletako bizimodua humanizatu eta bertako presoek eskubide guztiak errespetatzeko eskatuaz.

4.- Euskal Herriko hiritar guztiei giza eskubide guztien alde parte har dezaten deia luzatzen zaie, nola bizitzeko eskubide nagusia hala presoek eskubideak defenda ditzaten.

Adierazpen hau Euskal Herriko Udal guztietara bidaliko da, bertan irakurri eta hala nahi dutenek atxikimendua jaso dezan.

Euskal Herrian, 2000ko maiatzaren 23an

URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

2000.ko irailaren 18a

1999ko irailaren 18an, Bilboko Euskalduna Jauregian, Euskal Herriko ia 1.800 alkate eta zinegotzi UDALBILTZA, euskal lehen erakunde nazionala, martxan jartzea erabaki genuen. Beraz, gaur betetzen da erakunde berri honen bizitzaren lehen urtea. Bilkura horretan bezala, gaur ere bai, erakunde honen printzipio eta oinarri nagusiak baliozkoak direla berretsi nahi dugu. Hau da: Euskal Herriko sei herrialdeetako euskaldunen harremanak legitimoki bultzatu eta sakondu nahi ditugula, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik, senidekitzan lan eginaz, Euskal Herriko gizarte osoaren alde eta inor baztertu gabe arituz, eta euskal herritar guztien giza eskubide, erabakimen eta partehartze askean eta borondate librean oinarriturik.

Jaio berri den erakunde politiko honen hamabi hilabeteko balantzea egiterako orduan, gutxienez, positiboa izan dela esan beharra dago. Batez ere, lehen erakunde nazionala gisa, zerotik abiatu garelako eta urteetan eta urteetan zehar bizi izan dugun zatiketa fisiko eta mentala gauek egunera gainditzen ez delako. UDALBILTZAren Batzorde Iraunkorrek, dagoeneko, bere lehen Gestio Plana onartu du. Gestio Planaren osaketan 40 udal hautetsi lan egin dute sei hilabetetan zehar eta bere baitan euskara, kirola, kultura, garapen ekonomikoa, hezkuntza, lurralde antolamendua, naziotasuna eta nazioarte arloetan burutzeko zenbait ekimen aurreikusita daude. Kasu batzuetan ekimen praktikoak proposatzen dira, besteetan aldiz, azterketa eta hausnarketa sakonak egin behar direlarik.

UDALBILTZA bake giro itxaropentsu batetan jaio zela uka ezina da, naiz eta hasiera hasieratik, hamaika manipulazio eta eraso jasan behar izan hedabide eta indar politiko espainiar eta frantziar askorengandik. Izan ere, ahalegin guztiak egin zituzten UDALBILTZA eta antzeko egitasmoak itotzeko, euskal nazio eraikuntzaren ikurra daraman guztia ezabatu eta madarikatzeko.

Bake giroa eta giro politikoa erabat aldatu egin da UDALBILTZAren sorreratik hona, ETAK su etena bertan behera uztea jakinarazi zuenetik eta, batez ere, atentatuaren bideari ekin dionetik. Atentatuek eta kale borrokaren erasoek, askotan udal hautetsien kontra eginak, zuzen zuzenean oztopatzen dute UDALBILTZAren

helburu demokratiko eta irekia. Azkeneko hilabetetan zehar zenbait bider UDALBILTZAK publikoki argi eta garbi esan duen modura, indarkeria eta naziogintza, demokrazia eta inposaketa ezinezinak dira. ETaren atentatuek, kale borroka eta mehatxuek, etikoki gaitzesgarriak izateaz gain, euskal hiritarren giza eskubideak, borondatea eta erabakia ez dute errespetatzen. Horregatik, berriro ere, UDALBILTZAK ETari exijitzen dio Euskal gizarteari bere etorkizuna bakean erabakitzen uztea eta, ondorioz, betiko gera dadila.

Bestalde, UDALBILTZARI buruz, adierazpen eta iritzi desberdin asko entzun izan ditugu azken hamabi hilabete hauetan. Batzuek, batere zuzenak ez, ordea. Zentzu honetan, UDALBILTZA gogora ekarri nahi du euskal erakunde nazional honen ezaugarri nagusiak: demokratikoa eta zilegia, europearra eta etorkizunez betetakoa, aberasgarria eta hiritarrentzako onuragarria.

Demokratiko eta zilegia, UDALBILTZAN parte hartzen dugunok herritarrek hautatuak izan garelako eta askatasun eta zilegi osoz proiektu aurrerakoi honekin bat egiten ari garelako. Europarra eta etorkizunez betetakoa, europear integrazio garapen prozesuan bete betean kokatzen delako; izan ere, Europaren muga fisiko eta mentalak gainditzeko proiektuari kontribuzio positibo ezin hobea delako, aldi berean, euskal nazioaren identitate soziopolitikoa eta kulturala garatuz. Aberasgarri eta gehigarria, gaur egun mugaz bestaldeko lanean ari diren erakundeek duten hutsune nabarmen bat betetzera datorrelako. Eta, azkenik, hiritarrentzako erabat onuragarri eta positiboa, izan ere Udalerriek hiritarregandik gertuen dauden erakundeak dira, eta beraz, hiritarren kezka eta beharrak modu errazenean jasotzeko modua duen erakundea delako.

Guzti honen haurrean, UDALBILTZAK, bere lehen urtebetetze egunean, zera aldarrikatu nahi du:

1.- UDALBILTZAren lana indarkeriaren erabilerarik gabe, era demokratikoan eta zilegitasun osoz, askatasunean eta hiritarren borondatean eta erabakimenean oinarritzen dela. Eta beti giza eskubideak erabat errespetatuz, defendatuz eta aldarrikatuz.

2.- Euskal hiritarrak direla euskal nazioaren eta honen eskubideen subjektu, eta ez dutela onartuko inposaturiko marko politiko mugiezirik ez eta indarrez inposatutako askapenik.

3.- ETAK eta kale borrokaren egileek entzungor egin diote UDALBILTZAK beraien ekintza bortitzei uzteko eskaerari. Oztopo egiten diote euskal nazio eraikuntzari, izan ere atentatuek eta kale borrokaren ekintzek ez dute giza eskubiderik eta hiritarren borondaterik errespetatzen. Euskal gizarteari bere etorkizuna bakean erabakitzen uztea exijitzen diogu. Hori litzake bere mesede eta erabakirik onena eta ausartena. Utz diezaiola euskal gizarteari hitz egiten eta gera dadila.

4.- UDALBILTZAK eutsi egingo diola hasitako bideari eta hartutako konpromezuari. Bere helburuak betetzen ahaleginduko dela, dituen bitarteko guztiekin, baina beti ere Udal eta Udal Hautetsien borondatezko partehartzean eta inposaketarik gabeko demokrazian oinarritutako Nazio Eraikuntzan.

Euskal Herrian, 2000.ko irailaren 18an